

Aupa Nuarbe!



Gaur igandea da. Herriko plazan jende asko dago. Gure lagunek jendea ikusi dute eta plazara hurbildu dira. Janirek galdetzen du:

Zer dago plazan?

- Ez dakit, baina jende asko dago! – Erantzuten du Gontzalek.

Izaskun eta Gorka jendearen artean daude. Ikusi nahi dute baina ezin dute.

– E! E! Etorri hona. Hemendik zerbait ikusten dut – esaten du Izaskunek.

– Zer ikusten duzu, ba? – galdetzen dio Gorkak.

– Aizkolariak, harrijasotzaileak eta tiralariak. Herri-kirolak dira – dio Izaskunek.

Une horretan harrikasotzaile bat harria altxatzen ari da.

– Nor da hori? – galdetzen du Janirek.

– Ez duzu ezagutzen, ala? Hori Perurena da – erantzuten du Gontzalek.

Beste leku batean sokatira dago. Nuarbe Azpeitiaren aurka. Izaskuni Nuarbe gustatzen zaio eta oihukatzen du:

- Aupa Nuarbe! Baietz zuek irabazi!

Azkenean dena bukatu da.

Han daude txingak, aizkorak, harriak... Gontzalek argazki bat egin nahi du eta esaten dio Janireri:

– Ezetz altxatu harria!

Janire ez da bat ere inozoa, ez horixe! Harriak pisu handia du eta berak ezin du altxatu.

Horregatik esaten dio Gontzali:

– Ez, ezin dut altxatu. Oso astuna da eta.



AUPA NUARBE!

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Zein egun da gaur?

.....

2.- Non dago jende asko?

.....

3.- Nora hurbildu dira gure lagunak?

.....

4.- Non daude Izazkun eta Gorka?

.....

5.- Zer ikusi du Izaskunek?

.....

6.- Zertan ari da harrijasotzaile bat?

.....

7.- Nor da harrijasotzailea?

.....

8.- Non dago sokatira?

.....

9.-Nori gustatzen zaio Nuarbe?

.....

10.-Zer egin nahi du Gontzalek?

.....

11.-Zer du harriak?

.....

12.- Nolakoa da harria?

.....